

1.SAIOA

Sarrera:

HMH-MET 2011-2012 ikasturteko saiakuntzan Berritzeguneak antolatutako hizkuntzen mintegiaren helburu nagusiak eta edukiak zehaztu.

Helburuak:

- Hizkuntzen ikas-irakaskuntzen inguruko orientabide didaktikoak partekatzea
- Hezkuntza praktikak hobetzea
- Hizkuntzen **irakaskuntza bateratua** lortzeko aurrerapausoak ematea.

Edukiak:

- Hizkuntza eta komunikazio-trebetasunak garatzeko orientabide didaktikoak:
 - Irakurmena
 - Idazmena
- Hezkuntza Berriztatzeko Sailaren ekimenez eta HTB programaren barruan sortu diren materialak.
Komunikazio-proiektuak.
- Hizkuntzen Tratatua Bateratua.
- IKTak eta hizkuntzen ikas-irakaskuntzak.

Metodologia:

- Jarduera praktikak (analisi, hausnarketa...)
- Irakasleen praktikak, material didaktikoak, ikasleen ekoizpenak eta abar aztertu eta eztabaidatu.
- Baliabideak eskainiko dira.


Ondoren, zortzi mintegi-saioen antolaketa azaldu:

DATA	AZTERGAIA	JARDUERAK
	IRAKURMENA (1)	• Praktikaren analisia: ikastetxean erabiltzen diren testuak eta estrategiak aztergai. • Irakurketari lotutako erabakiak hartzea. orientabide didaktikoen irakurketa. • Ikastetxean egiteko: irakurketa jarduerak adostu. • Web 2.0ren gunea. Arbel digital Elkarreragilea irakurmena lantzeko. • Oinarrizko bibliografia (1).
	IRAKURMENA (2)	
	IRAKURMENA (3)	
	IRAKURMENA (4)	
	HIZKUNTZA IDATZIA (1)	
	HIZKUNTZA IDATZIA (2)	
	HIZKUNTZA IDATZIA (3)	
	HIZKUNTZA IDATZIA (4)	
	EBALUAZIO SAIOA.	

Abiapuntua. Zergatik irakurmena?

Bost trebetasunak elkarri lotuta daude, eta egia da ia ezinezkoa dela modu isolatuan lantzea beheko grafikoan ikusten den bezala: irakurri egiten dugu horretaz hitz egiteko, informazioa bilatzeko eta gero idazteko, elkarriketan aritzen gara irakurritakoaren gainean.... Horretaz gain, ikastetxeek aurkeztutako hobekuntza plan gehienetan idatziaren ulermena lantzeko proposamenak egin dira.

Beraz, irakurmena lantzea hasierako urratsa besterik ez da, hizkuntzak lankidetzan, komunikazio proiektuak edota jarduera bateratuak, non bost trebetasunak elkarri loturik landuko diren, gauzatzeko.



JARDUERAK

1. jarduera. Zer da irakurtzea?

Prozedura:

- Jardueraren helburua irakurmenaren kontzeptua adostea da.
- Irakurmenaren definizioak banatzen dira.
- Hiruko taldeetan, irakurmenaren definizioa eta ezaugarri nagusiak adosten dira.
- Talde handian, definizioa adosten da

Erabil daitekeen tresna

- Irakurmenaren definizioak.

2. Gure praktika didaktikoa abiapuntu.

Prozedura:

- Mintegi saio baino lehen, komenigarria da galdesorta ikastetxeetara bidali inplikaturako irakasle guztien iritzia jasotzeko asmoz.
- Mintegi-saiorako komenigarria litzateke ikastetxean erabiltzen dituzten unitate didaktikoak ekartzea.
- Praktika didaktikoak partekatzea da helburua.
- Galderak erantzungo dira eta ondorioak bilduko.
- Ondorioak orientabide didaktikoekin alderatuko dira.

Erabil daitekeen tresna: Galdesorta

Irakurmena lantzen. Gure praktika didaktikoa

1. Irakurmena lantzeko zer nolako jarduerak egiten dituzue? Zer da arrakastatsuena?
2. Bakarka ala taldeka aritzen dira ikasleak?
3. Irakurketaren inguruko lana beste irakasleekin (hizkuntzetakoak edota arlokoak) antolatzen duzue ?
4. Zertarako irakurtzen dute ikasleak? Ikasteko, irakurzaletasuna sustatzeko...

5. Zein helbururi lotutako irakurketa proposatu ohi duzue? Irakurri disfrutatzeko, irakurri ikasteko... Irakurketari lotutako jarduerak isolatuta proposatzen dira ala proiektuen barruan (azalpenak prestatzeko, zerbait idazteko ...) ?
6. Irakurri aurretik motibazioa lantzen da? Irakurketari lotutako jarduerak testuinguru motibagarri batean txertatzen dituzue
7. Irakurri aurretik elkarriketarik bideratzen da aurre-ezagutzak azaleratzeko?
8. Nola ebaluatzen duzue? Deskribatzailerik erabiltzen duzue? Hizkuntzen artean adosten dira deskribatzaileak?
9. Ulermen arazorik sortzen denean nola konpontzen (bideratzen, erantzuten...) duzue?
10. Beste arloetako testurik erabiltzen duzue?
11. Testu digitalak eta analogikoak lantzen dituzue?

Galdesortean erantzunak arbelean bilduko dira edo atxikitako dagoen txantiloian.

Gald.	Erantzunak
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	

10	
11	

3. Idatziaren ulermena lantzeko Orientabide Didaktikoak aztergai.

Prozedura:

- Galdetegiaren erantzunak abiapuntu izanik, irakurmena lantzeko orientabide didaktikoak irakurri.
- Jarduera hau Arbel Digital Elkarreragilea erabiliz egin daiteke, eta beraz, 4. puntuan adierazitakoa aldi berean erakutsi.
- Puntu nagusiak nabarmendu. Hiru estrategia eta prozedura aukeratu bi atal nagusien arabera (Nola irakurri/zer irakurri) eta fitxa bete.
- ...

Honako tresna proposatu daiteke: orientabideak (txantiloia)

Irakurmenari lotutako orientabideak aztertuta, aukeratu hiruna alderdi eraginkorrenak ikasgelako irakurketa praktikak hobetzeko:

NOLA IRAKURRI?

ZER IRAKURRI?

Web 2.0ren zenbait tresna. Arbel Digitala (PDI- ADE). Zenbait iradokizun irakurriaren ulermena lantzeko.

Saiorik saio, irakasleei web2.0ren aplikazio bati buruzko informazioa helarazi eta lan proposamenean uztartzeko eskatuko zaie. Saio honetan arbela digitala

erabiliko da (3. jarduera) eredu gisa.

5. Ikastetxean elkarrekin egiteko lan proposamena:

Prozedura:

- Ikastetxeko hizkuntza irakasleen artean ulermenarekin lotutako jarduera bat planifikatzea proposatuko da irakasleen arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatzeko asmoz zein saioan egindakoa erabiltzeko eta konpartitzeko.
- Proposatutako jarduerak jarraipena izango du beste saioetan.
- Idatziaren ulermenari laguntzeko fitxan jaso dituzuen estrategiak eta prozedurak kontuan hartu eta gelarako irakurketa jarduerak proposatu hiru hizkuntzetan eta bakoitzean testu-genero bat landu.
- Lan koordinatua aurrera eramateko hizkuntzen integrazioarako ardatz komun bat hartu behar da (testu tipo komuna, gaia, erabilpen eremua...)

6. Oinarrizko bibliografia eta baliabideak (1)

Saiorik saio ikastetxean irakurtzeko eta hizkuntza irakasleak elkarrekin lantzeko testu eta artikulua interesgarriak proposatuko dira.

Lehenengo saio honetan, laguntza moduan, honako helbide hauek eman daitezke:

- VIDAL ABARCA, E. (2009)
10 claves para enseñar a comprender (Primaria).
http://docentes.leer.es/files/2009/05/art_prof_ep_10clavesparaensenaracomprender_vidalabarca.pdf
- GASTEIZko berritzegunean egindako "Idatzizko ulermena" dokumentua .

Eta adibide hauek oso interesgarriak dira ikastetxean egiteko proposatu zaien lana gauzatu ahal izateko. Kontuan izan behar da Bigarren Hezkuntzarako bideratuta daudela :

Ingelesa:

http://dpto.educacion.navarra.es/materialespiml/14ingles_files/Ingelera-Girlfriend.pdf

Euskera:

http://dpto.educacion.navarra.es/materialespiml/09euskara_files/51-1C-10Handiaizangonaizenean.pdf

Gaztelania:

http://dpto.educacion.navarra.es/materialespiml/16lengua_files/31-1C-18Historiadeunagaviotaydelgato.pdf